




IPIa %0,6 hazi zen uztailean urte arteko tasan

EAEko industria ekoizpena
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu duenez, uztailean IPIa %0,6 hazi zen urte arteko tasan. Uztaileko tasa urrun dago aurreko bi hilabeteetako erritmoetatik (%8,8 eta %10,2), baina eremu positiboan jarraitzen du. Energia izan zen hazkunderik handiena eskuratu zuen jarduera, aurreko urtearen aldean %26,4 handitu baitzen.

Azalera handietako salmentak gutxitu ziren uztailean

Azalera handietako merkataritza indizea
Urte bakoitzeko uztaila. Prezio iraunkorrak




Iturria: Eustat.

Uztailean, azalera handietan eta elikadura kate handietan saldu-tako kopuruak %5,2 egin zuen behera. Hala ere, salmenta txikiago horien diru sarrerak aurreko urtekoak baino %4,5 handiagoak izan ziren, inflazioa produktu horietan, batez ere elikagaietan, izaten ari den eraginagatik.




Petrolioaren prezioa 100 dolarretatik behera dago



Iturria: Ekonomia Gaietarako Ministerioa.

Aste honetan Brent petrolioaren prezioak merkatzen jarraitu du eta upelaren salneurria 100 dolarretik behera kokatu da. Hain zuzen ere, astelehenean 99 dolarretan saldu zen eta asteazkenean 93 dolarretan kokatu zen. Halaber, lehen etorkizuneko upelaren salneurria 90 dolarretik behera kotizatu zen.

Euroguneko PMI konposatua 48,9gra jaitsi zen



Iturria: Markit.

Euroguneko PMI konposatua 48,9gra jaitsi zen abuztuan, eta balio horrek ekonomiaren uzkurdura adierazten du. Manufakturak eta zerbitzuak jadanik 50. mailatik behera daude, hau da, ekonomiaren hedapen eremua eta uzkurtze eremua bereizten dituen langatik behera, alegia.